

ONARRIAK

1. PARTE HARTZAILEAK

Mondragon Unibertsitatean 2024/2025 ikasturtean matrikulatutako ikasle eta bertako langileak.

2. GAIA

Mondragon Unibertsitateko kirol jertsearen diseinua, unibertsitate kirol txapelketa ofizialetan erabiliko dena.

3. LANAREN EZAUGARRIAK

- Unibertsitateko logotipoa ezin da eraldatu eta diseinuan integratu beharko da.
- Diseinua kolore bakarrean izan behar da, jertsean erraz seriegrafiatzeko bezalakoa eta diseinuak gehienez bi irudi izan beharko ditu.
- Idatzizko edukiren bat izatekotan, euskara hutsean izan beharko du.
- Logotipoa jertsearen zein tokitan eta zein tamainatan ezarriko den zehaztu behar da, irudi baten bitartez.
- Ez da onartuko aurrez beste lehiaketa batean aurkeztutako lanik.
- Irudiak .jpg formatuan, bektorialak eta tamaina handikoak izan beharko dira.
- Kirol Zerbitzuak bere gain hartzen du lanen bat lehiaketatik kanpo uzteko eskubidea, baldin eta giza eskubideen aurkakoa dela uste baldin bada (arrazakeria, sexismoa, bortizkeria...).
- Parte hartzaileak aitortzen du bidalitako lanaren egilea dela.
- Adimen Artifiziala erabil daiteke soilik irudi eskubideen erabilera eskubide osoak eskaini eta jabetza intelektuala partehartzailearen gain uzten baditu.
- Internetetik deskargatu eta moldatzen diren irudiei dagokionean, moldatu gabeko irudia(k) entregatu beharko dira dagozkien erabilera lizentziakin.

4. LAN KOPURUA

Pertsonako hiru lan aurkeztu daitezke gehienez.

5. AURKEZTEA

- Mondragon Unibertsitateko Kirol Zerbitzuan aurkeztu beharko da abenduaren 15a aurretik, posta elektronikoz. Emaila: kirolak@mondragon.edu/Telefonoa: 943712033.
- Lan guztiak Kirol Zerbitzuaren webgunean izango dira ikusgai.

6. SARIA

200€ diseinu irabazlearentzat.

7. EPAIMAHAIA

Kirol Zerbitzuak adituen batzorde bat osatuko du eta berau izango da ebazpena emateko eskubidea izango duen epaimahaia. Epaimahai honek aurkeztutako lanak kalitate gutxikoak edo lehiaketarako ezegokiak direla iritzi badio, Kirol Zerbitzuak bere gain hartuko du irabazlerik ez izateko eskubidea.

8. JABETZA

- Aurkeztutako logotipoaren jabetza egilearena izango da.
- MUko Kirol Zerbitzuak diseinu saritua jertsearen diseinurako erabiliko du eta gainontzeko lanak webgunean izango dira ikusgai, beti ere egilearen izena aipatuta.
- Diseinuaren edonolako beste erabilpen bat egiteko, egilearekin adostuko da.